



Aurkeztu dugu Bertsolari Txapelketa Nagusia

Pandemiak eraginda, bost urtera egingo da Txapelketa Nagusia, eta gogotsu dago Bertsozale Elkarteak udazkenari begira. Egoerak hobera egin badu ere, lanean jarraitzen du Bertsozale Elkarteak plaza biziberritzeko asmoz.

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren egutegi osoa eta bestelako xehetasunak aurkeztu ditugu Bilbon egin dugun agerraldian. Euskaltzaindiak hiriburuan duen egoitzan izan da, 11:00etan, eta bertan hartu dute parte Bertsozale Elkarteako Gontzal Agotek, Idoia Trenorrek eta Oier lurramendik.

Pandemiak eraginda, azken Txapelketa Nagusitik bost urtera egingo da datorren hau, Bertsozale Elkarteak antolatzen duen hamargarrena. Azken urteotan, ahalegin handia egin du Bertsozale Elkarteak tokian tokiko antolatzaileekin, bertso-eskolekin eta sortzaileekin beraiekin batera plaza biziberritzeko: "Egoerak hobera egin du, eta horrek poza ematen du. Dena den, bertso plazaren martxa arretaz segitzen dugu; batetik, pandemiak utzitako ondorioak oraindik ere ez direlako guztiz desagertu, eta, bestetik, bertsolaritzaren egungo egoera bertan islatzen delako", azaldu du Gontzal Agotek.

"Azken urteetan gertatutakoak gertatuta ere, argi esan dezakegu bertsolaritza oso bizi dagoela euskararen lurralde osoan zehar", jarraitu du Idoia Trenorrek. Hain zuzen, aurkezpenean izan dira Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, eta Nafarroako Bertsozale Elkarteetako eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako Bertsolarien Lagunak Elkarteak lehendakariak. "Garrantzitsua da bizitasun hori nondik datorren azaltzea. Txapelketa ez da ekintza isolatu bat, txikitik, egunerokoan eta ahalegin handiz egunero egiten den lanaren ondorioa da".

Bazkideek finalerako sarrera bermatuta izango duzue astebetez

Oier lurramendik gogorazi du, duela astebate iragarri bezala, www.bertsosarrerak.eus atarian jarriko direla salgai sarrera guztiak, ekainaren 23an, 9:00etatik aurrera, eta Nafarroako

Bertsozale Elkartearen egoitzan ere finalerako sarrerak saltzeko leihatila zerbitzua eskainiko dela, ekainaren 23tik 30era (asteburua salbu).

Halaber, egun horietan finalerako sarrera bermatuta izango duzue Bertsozale Elkarteako bazkideek. Bestalde, prezio hobeak ere izango dituzue sarrerak erosteko, eta opariren bat ere bai udazkenean...

Sarrerak aukeratzen joateko, hurrengo orrialdean dituzu txapelketa honetako egutegiaren xehetasunak.



Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiko irudia. //XDZ



**PERU ABARRATEGI
SARRIONANDIA
Gasteiz - 2022-VI-11
Arabako Bertsolari Txapelketa
Txapelkunaren agurra**

Doinua: *Maitasuna izan leike*

Eskakizun txikitxo bat aterako dut plazara nahiz Aramaixo ta Oion ez den berdin beharbada probintzi txiki honek du bere berea euskara batzuek ahaztu arren gu ere euskaldun gara beraz konpleju guztiak doazela pikutara ama berdinak erditu baditu zazpi alaba (bis) merezi duen moduan zaindu zazue Araba.

Hamalau saio izango ditu Bertsolari Txapelketa Nagusiak

Getxon, Arrasaten, Gotaine-Irabarnen, Gasteizen, Donostian, Lizarran, Elizondon, Donibane Garazin, Irunen, Durangon, Amurrión, Baionan, Bilbon eta Iruñean izango dira txapelketako saioak.

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irailaren 24an Getxon hasi eta abenduaren 18an Iruñean amaituko zela gauza jakina zen; dagoeneko, ordea, badakigu tarteko saioen berri ere.

Getxon, Arrasaten, Gotaine-Irabarnen, Gasteizen, Donostian, Lizarran, Elizondon, Donibane Garazin, Irunen, Durangon, Amurrión, Baionan, Bilbon eta Iruñean izango dira saioak. Lehen seiak lehen fasekoak izango dira, eta bi jokatu dira astebururo, larunbatez eta igandez. Zazpi finalurreko izango dira jarraian, larunbatetan, eta sailkatutako bertsolariak Iruñean egingo den finalean ariko dira abenduaren 18an.

42 bertsolari, 14 gai-jartzailek eta 21 epailek hartuko dute parte. 36 bertsolari hasiko dira lehen fasetik eta 19 bertsolari sailkatuko dira finalurrekoetara. Bertsolari Txapelketa Nagusian aritutako bost finalista batuko zaizkie etapa honetan. Bi itzuli izango dituzte finalurrekoek eta puntu gehien pilatzen dituzten zazpi bertsolariak Nafarroa Arenan izango den finalean egingo dute bertsoan. Egungo txapeldunak ere finalean hartuko du parte, Maialen Lujanbiok.

Antolakuntzako kideak, lanean

Hilabeteak daramatza antolakuntzak Txapelketa Nagusiaren prestaketa lanean. Koordinazio taldeaz gain, komunikazio taldea, logistika taldea eta bertsozaintza taldea ari dira martxan txapelketak eragiten dituen lanei erantzunez.

Horiez gain, talde teknikoak ere osatuta daude: epaile taldea eta gai-jartzaile taldea ere sortu dira eta dagoeneko udazkenera begira jarrita daude.

Bakoitza bere arduratik baina taldelanean, udazkenerako dena prest izateko gogotsu dago antolakuntza.

Txapelketa Nagusia jarraitzeko hainbat bide

www.bertsozale.eus webgunean jarraitu ahal izango da txapelketa. Bertan egongo da informazio guztia: albisteak, sailkapena, argazkiak... Telegram kanala ere sortuko da espresuki txapelketako informazioarekin.

Gainera, www.bertsoa.eus atarian ere informazio idatziaz gain, bertsoaldiak, bertsolarien adierazpenak eta zuzeneko emankizunak ere eskainiko dira. Emankizun hauek EITBrekin elkarlanean egiten ditugu, eta telebistaz ere eskainiko dira, ETB4n, finalurrekoetatik aurrera.

Hitzetik Hortzera ere Txapelketa Nagusiari begira ekoitziko da udazkenean: bezperako saioko bertsoaldirik onenak eta txapelketari lotutako eduki bereziak ikusi ahal izango ditugu igandeetan, 15:00etatik aurrera.

Beste hainbat hedabide ere izango ditugu bidelagun.



Hamalau saio izango dira guztira. Bazkideek, ohi bezala, abantailak izango dituzte prezioan. //XDZ





LEHENGO FASEA

Data	Herria	Lekua
Irailak 24, larunbata, 17:00	Getxo	Muxikebarri Zentroa
Irailak 25, igandea, 17:00	Arrasate	Amaia Udal Antzokia
Urriak 1, larunbata, 17:00	Gotaine-Irabarne	Herriko Gela
Urriak 2, igandea 17:00	Gasteiz	Europa Biltzar Jauregiko Maria de Maeztu entzunaretoa
Urriak 8, larunbata, 17:00	Donostia	Victoria Eugenia Antzokia
Urriak 9, igandea, 17:00	Lizarra	Los Llanos Kulturgunea

FINALAURREKOAK

Urriak 22, larunbata, 17:00	Elizondo	Baztan pilotalekua
Urriak 29, larunbata, 17:00	Donibane Garazi	Jai Alai ezker pareta
Azaroak 5, larunbata, 17:00	Irun	Ficoba
Azaroak 12, larunbata, 17:00	Durango	Landako Gunea
Azaroak 19, larunbata, 17:00	Amurrio	Bañueta Kiroldgia
Azaroak 26, larunbata, 17:00	Baiona	Lauga
Abenduak 3, larunbata, 17:00	Bilbo	Bizkaia Frontoia

FINALA

Abenduak 18, igandea, 11:00	Iruñea	Nafarroa Arena
-----------------------------	--------	----------------



Antolatzaileak buru-belarri ari dira prestaketa lanean. Irudian, zozketa egiten. //XDZ



Puntu jarrita

ETXAHUN LEKUE ETXEARRIA

Aupa Beñat! Egongo ez da ba bizitza txapelketatik kanpo! Bertso mundutik kanpo ere badago bizitza, hortik atera kontuak! Baina guk mundu honetan segi gura dugu, ezta?

Txapelketa beti egon da nire, zure eta bertsoa hurretik bizi dugun gehienon ibilbidean presente (presenteegi, akaso?). Ume ginela hasi ginen bertsoan, eta orduan ez zen galdetu ere egiten ea eskolartekoan kantatu gura ote genuen. Azterketa moduko bat zen guretzat, eta nik behintzat eskolako azterketetan baino estualdi handiagoa pasatzen nuen. Bidean geratu ziren gure inguruan zebiltzanetako asko, baina nork jakin eskolartekorik ez balego ere bidean geratuko ez ote ziren.

Sasoi hartan aurrera egin genuenok *Kanpantxukadak* genituen Bizkaian. Itzela izan zen guretzat, besteak beste, bertan egindako lagunak zirelako eskolartekoetan ere kantulagun izango genituenak. Bertsoari lotuta segi genezan ezinbestekoa izan zen talde horren parte sentitzea gutariko askorentzat. Elkartetik gaztetxoan aisialdian egindako bideak beste askori lagunduko dio orain ere.

Kanpantxun egindako lagun batzuk izan ditut bidelagun txapelketak prestatzerakoan, eta eraiki dugun konfiantza giroa izan da txapelketez gozatu izanaren arrazoietakoa bat. Baina diozun legez, txapelketa sasoiaren baina ez gara batu, hortik kanpo norberak bere bertso-eskolan edo bakarrik egin du berea. Baina txapelketako erritmo frenetikoaren ere ezingo dugu betikotu!


Oraintsu Taldekakoa jokatu da gurean, eta hor egin dut topo *Kanpantxukadak*, eskolartekoak eta bestelako plazak elkarbanatutako lagun batzukaz. Azken urteotan plazatik aparte ibili ostean begietan distira berezia zutela, nerabeen ilusioz sumatu ditut kantuan. Gorka Lazkano zen euretako bat. Atsedena luze bat ote da horretarako sekretua? Zer dinozu, Gorka?

Koplak

Euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatuko duen legearen alde

Ekainaren 16an hainbat kultur eragilek agerraldia egin genuen Donostian. Euskal Autonomi Erkidegoan egin nahi den Hezkuntza lege berriak euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatu behar duela aldarrikatzen dugu hezkuntza eraldatzailea lortu nahi badugu; eta hori hala izan dadin, garrantzi handia du legeak behar hori modu esplizituan jasotzea.

Poto-Finixa



Gure egoitza berria ezagutzen...

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertsularien Lagunak Elkarteak bertso irakaslea behar du

Bertsularitza bertso-eskoletan eta ikastegietan irakasteko langilea xerkatzen ari da Bertsularien Lagunak Elkarteak. Interesa duenak C.V.-a eta eskuz idatzitako motibazio gutuna ekainaren 20rako helarazi behar ditu Bertsularien Lagunak Elkartera edo, emailaz, bertsularien-lagunak@bertsozale.eus helbidera. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.



Haizea Arana Leire Vargas Aner Euzkitze Oihana Arana

Zuzendaria: Edurne Azkarate

eRRe

Aldarri bat bertsoz

PUBLIZITATEA